

GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO 2018. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

| | |
|---|--|
| UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA: | EUSKARA SAILA |
| INSTRUKTOREA: | Euskara zerbitzuburua |
| BALORAZIO BATZORDEA: | Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Jon Goikolea Ojinaga, Sergio Ugalde Zabala. |
| XEDEA: | Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko diru laguntza |
| KODEA: | Espediente zk.: Euskara Sailaren 81-13 |
| AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA: | 2018ko aurrekontuan: 1.000 €. 01400-33540-4800102 partida |
| HELBURUA: | <ul style="list-style-type: none"> - Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea - Euskararen erabilera sustatzeko udalerriko eragileekin batera ekimenak eta programak bideratzea |
| EPEA: | Eskaerak aurkezteko epea, 2018ko urriaren 2tik 31ra. |
| BALORAZIO ERIZPIDE ZEHATZAK: | <ul style="list-style-type: none"> -Bermeon erroldatuta egotea -Gidabaimenaren prestakuntza euskaraz egitea -B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz eginda eta gaindituta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen -Bermeoko Udalagaz zorrik ez izatea |
| ESKATZAILEAK: | Bermeon erroldatuta egon eta gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak. |
| DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA PROGRAMA: | <p>Gidabaimena prestatu eta azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzea.</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek 150 euroko diru-laguntza jasoko dute.</p> |

**PROZEDURA ETA
AURKEZTU
BEHARREKO
DOKUMENTAZIOA:**

Ebazteko prozedura: konkurrentzia ez lehiakorra.

Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira.

Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria beteta
- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)
- Prestakuntza euskaraz jaso eta gainditutako azterketa teorikoa euskaraz egin duela ziurtatzen duen agiria
- Erakunderen baten diru laguntza jaso izanaren kasuan, horren frogagiria

**ERLAZIONATUTAKO
AGIRIAK:**